

Laminak

Antxina, laminak egoten ei ziran, ur potxingoetan, erreketan, otsin txikietan. Garritik behera arraina izaten ei ziran, eta handik gora, bular, ule eta guzti, andrea.

Laminak egoten ziran lekuetan jentea, gauetan eta, bildurrez ibilten zan, ze laminek gauza bat ei eukien; lehenagoko denporetan gaueko hamabiaK arte indarra eta ahalmena eukien, eta hamabiaK joten ebenean indargatu eta ezertarako abilidade barik gelditzentz ziran. Hamabietako Kanpai-hotsagaz batera erretiretan ziran euren gordelekuetara. Eta hamabietatik aurrera ez egoan laminarik.



Baegoan behin, mutil bat, Zeberioko, alboko etxeren batera joan zana zaldi gainean gauean. Gaueko hamabiak inguruan esan ei eban:

-Etxera joan behar dot.

Zaldi gainera igoten egoala, bertako leku oek esan eutsien:

-Tertzio txarrean; ez zaitez orain joan.

-Bai -esan eutsen- zaldian jarri eta banoa ni etxera.

Ahaleginak egin eutsiezan ez joateko, tertzio txarra zala-ta.

Baina urten eban zaldi gainean mutil horrek, inori Kasunik egin barik.

Bidean joiala, laminek urten eutsien bidera.

-Jatsi zaldi gainetik, jan egin behar zaitugu eta.

Baina laminek ez egozan nasai, buruko min handia emoten eutsien zer pentsau eukien, baikien hamabiak laster joko ebena-eta.


Horregaitik mutilari zaldi gainetik arintxu jasteko ekin eutsien. Berak mutilak ziur ekan hamabiak puntu-puntuaren izateko minutu bat falta zala bakarrik, eta laminei esan ei eutsen:

-Apur-apur baten itxaroizue, ipuin bat Kontau deizuedan.

Itxaroizue apurtxu bat.

Laminek jasteko zaldi ganetik ekiten eutsien, jan egin behar ebela-eta. Bainaz elan edo halan tardavarazo ei eutsen. Hamabiak jo ezkerro, hareek hari begira egon barik, jateko asmoak bertan behera itxi eta euren lekura erretirau behar izango eben.

Eta laminek, garritik gora guztiz andren modukoak ziranez, eta ule luzea trentza baten batuta eukenez, hamabiak jo eben unean



eta alde egin behar eben momentuan, mutil horrek oratu eutsan ule trentzetatik euretariko bati eta bertan gelditu behar izan zan beragaz. Zaldian hartu, eta beragaz eroan eban etxera, behin hamabiaK ezKero ez eben indarrik eukiten eta.

Etxera eroanda Kateakaz lotuta euki eban han, ea berba egiten eutsan, baina lamineak ez eban berbarik egin gura.

Eta egun batzuetan ez eutsan tautik be esan. Mutilak esnea eukan egosten sutan eta laminei esnea sano gustetan jakenez, hari begira egoan. Esnea irakiten hasi zan orduan gainezka egin eban ontzitik Kanpora. Urtetako puntuan berbaz hasi zan laminea, esneak urten ez egian ontzitik:

-Txurie gora, txurie gora -esaten eutsan lamineak.

Orduantxe hasi zan laminea berbaz.

Mutilak itandu eutsan ia lamineak ez diran aldenduko, eta erantzun eutsan lamineak:

-Neuk esaten deutsudazan gauzak egiten badozuz, lamineak aldendu egingo dira.

-Zer egin behar da, ba? -esan eutsan.

-Lamineak aldendu daitezan, gauza bat egin behar dozue.

Lehenengo, idiaK topau behar dozuez, baina San Juan goizean jaiotako idi nabarrak izan behar dabe. Eta hareexei buztartuta ibilten irakatsi ostean, erreka guztietatik Korridu behar dozue, itaila batzuk iminita. Eta bigarrenetan, baso edo herri puntutan baselizak altzau behar dozuez. Horreexek egiten badozuez, lamineak aldendu egingo dira.

Eta esan eta egin. Idiotak errekkak igaro ahalean ebilzan. Errekak txarto egonda be, ondoen egoan lekutik igaro behar zan; erreketan ez da erraza izaten idiotak alde batetik bestera pasetea, baina tira, uleen lumaz beterik lez jarri ziran errekkak itailak igaro ziran orduan.

Halan aldendu ei ziran begien aurretik lamineak.

Ipuina ulertzen

Zelangoak dira ipuinean agertzen diran laminak? Deskribu eizuz.

Zer gertatzen jaken laminei hamabiak joten ebenean?

Zergaitik esaten eutsen Zeberioko mutilari ez joateko etxera gaueko hamabiak aldera?

Zer egin eutsan Zeberioko mutikoak laminari hamabiak jo ebenean?

Zelan lortu eban mutikoak laminak berba egitea?

Zelan lortu eban azkenean laminak aldentzea?

Ipuina hasteko modu bat baino gehiago dago Kontakizun honetan. Zeintzuk dira?

Ipuinak jolasteko dira

Oraingoan zu zeu izango zara idazlea. Orain arte ikasi doguzan pausuak erabilita, zuk asmautako ipuina idatzi behar dozu. Kontuan izan *Itsua eta eskribaua*¹ ipuinean ipuinak idazten hasteko emon genduzan aholkuak.

¹ *Itsua eta eskribaua / Ama sorgina, Herri ipuinak 1, Labayru Ikastegia, 2005.*

Uratsarena



Antxina, bedar, txori, abere eta patariekin euren berbetea ahaztu baino lehentxoago gertatutako jazoera da hau.

Zaldibarko herrian hondino karren ez zan inor bizi, eta etxerik be ez egoan, eta mendia be ez zan gaur egun dagozan mendietanikoa; orduan, dana zan sastrakea eta sasitzea.

Baina han, median, ura egoan, uratsak urteten eban.

Bazan behin, Durangon, antxina-antxina, neska gazte bat. Neska hori, egun baten gaixotu egin zan, osatu ezineko gaixotasuna zan berea, leprea hain zuzen be. Eta osatu ezin zanez, mendira bota eben, Zaldibar mendira, sastrakea eta sasitzea baino ez egoan mendi haretara. Eta median itxi eben, hil arte han biziko zala-ta.

Mendi haretan ez egoan jatekorik ezta edatekorik be, eta gure lagunak zer egin pentsau behar eban:

-Badakit, animaliek jaten dabena eta edaten dabena, haxe jango eta edango dot neuk be.

Esan eta egin. Ordurik neskak ezkunak, urrak... abereen janaria jaten hasi zan. Eta garbitu be, abereen moduan garbitzen eban bere gorputza, mendian egoan uratsagaz.

Egunak joan egunaK etorri, neskak berak igarri eban uratsa edan ahala eta gorputza garbitu ahala, leprea joan egiten jakola, desagertu egiten jakola.

Eta aurpegia eta gorputza, biak garbitu jakozan.

Egun baten, eguzkiak gogor joten ebanean, Nafarroako gizon bat igaro zan menditik zaldi gainean. Hantxe geratu zan deskantsetan, gavez helduko zala-ta, eta atsedena hartzen geratu zan bere zaldiagaz.

Hantxe egoala, non ikusten davan Durangoko neska gaixoa. Gizona harrituta geratu zan hain neska ederra, han, modu haretan ikusteaz.

-Nongoa zara neska politori? -itandu eutsan Nafarroako gizonak.

-Durangoko nintzan, baina urteotan, hemen bizi naz, mendian-azaldu eutsan neskak.

-Eta zer dala-ta bizi zara mendian? -gizonak barriro be, harriturik.

Neskak, dan-dana Kontau eutsan:

-Durangon bizi nintzala, gaixotu egin nintzan, nire gorputza Kostraz bete zan, eta herritarrek bildurraren bildurrez, mendira ekarri ninduen. Baino hemen bizi nazanetik, gorputza uratsagaz garbitu dot, eta apurka-apurka, dan-dana desagertu jat.

Gizona, neskatxaren edertasunaz liluratuta, beragaz ezkondu zan.

Eta gero, han bertan ipini ei eben ur-biltegi antzeko bat, eta balnearioa be hantxe ipini eben. Eta gure asabek-eta esaten dabe markesak eta jauntxuak Zaldibarrera joaten zirala bainuak hartzen, uda pasetan.

Neska ha uratsak osatu eban; uratsak hainbeste gauza osatzen dauz eta.

Eta halan bazan ala ez bazan, sartu daitela DurangoKo plazan.



Ipuina ulertzen

Honeek ipuinean agertzen diran pertsonaiak doguz. Zelan imajinetan dozu bakotxa?

Neskea

HerritarraK

Nafarroako gizona

Zer jazo jakon neskari Durangon bizi zanean?

Nora bota eben herritarrek neskua?

ZerK osatu eban neskaren gaixoa?

Ondo jokatu eben herritarrek? Zergaitik?

ZuK zer egingo zeunk e zure herrikoren batek arazo hori eukiko baleu?

Zuretzat, zelangoa da ipuina, tristea ala alaia? Zergaitik?

Ikusi dozu inoiz balneariorik? Zertara joaten da jentea hara?

“Antxina, bedar, txori eta patariet euren berbetea ahaztu baino lehentxoago gertautako jazoera da hau” esaldiagaz hasten da ipuina. Zer esan gura dau esaldi honek? Noiz jazo zan ipuinean Kontetan dana, antxina ala oraintsu? Zelan dakizu?

Orain topau eizu amaierea. Zein da? IraKurri dozu inoiz horretariko amaiерарик? Ezagutzen dozu besteren bat? Zein?

Nor da ipuin honetako pertsonaiarik garrantzitsuena? Zergaitik da garrantzitsuena?

Non jazoten da ipuinean Kontetan dana? Zein leku aitatzen dira?

Ipuinak jolasteko dira


u	z	l	o	p	a	g	s	g	c
b	r	j	s	r	d	o	s	a	b
t	o	a	a	s	u	r	a	r	f
a	i	p	t	u	p	p	d	b	m
z	s	a	u	s	n	u	e	i	e
g	a	z	t	e	a	t	n	t	n
u	h	a	u	a	l	z	x	u	d
e	z	k	u	r	r	a	z	o	i
r	a	t	i	r	r	e	h		a
o	i	g	e	t	l	i	b	r	u

Topau eizuz ipuinean agertzen diran hamar berba.

Ipuinaren hasieran neska itxura berezi bategaz azaltzen jaku, baina ipuinaren amaieran, uratsari eskerrik, beste itxura bat agertzen dav. Margotu eizuz hasierako eta amaierako neskak, eta azaldu desbardintasunak.

Neskea hasieran

Neskea amaieran



Desbardintasunak

Hasierakoa

Amaierakoa

Esaiguzu esaldi honeek guzurra ala egia diran.

- a. Herritarrek neskera mendira bota eben osatu daiten
 - b. Markesen eta jauntxuen istorioa kontetan da
 - c. Durangon ez egoan inor hau jazo zanean
 - d. Neskeak uratsak osatzen ebala ikusi eben
 - e. Mendian ez egoan ezer, ezta urik be
 - f. Neskeea, bildur zala-ta, mendira joan zan
 - g. Orain dala gitxi jazo dan Kontaera dogu hau
 - h. Nafarroako gizonak osatu eben neskaren gaixotasuna
 - i. Neskeea Zaldibarrekoan zan
 - j. Uratsa Kaltegarria da osasunerako

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritza eta
Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dau.

© Labayru Ikastegia

Edizioaren arduraduna:
Idoia Alzibar

Marrazkiak:
Garikoitz Arregi

Lege Gordailua
BI-3663-07

ISBN
978-84-86833-23-7

